



**DES-KONTROL** taldea 1996an sortu zen Arrasaten (Gipuzkoa) eta hasieratik punk eta oi! musika estiloak jorratu dituzte argitara eman dituzten disko guztietan. Gaur egun, Des-Kontrol taldea erreferente izatera iritsi da. Des-Kontrol taldearen seigarren disko hau, elkartasun diskoa da eta erantzun argi, garden eta irmoa hor zehar entzuten diren Des-Kontrol taldeari buruzko esamesei eta irainei.

Des-Kontrol taldeak egiten duen musikak 70eko punkaren eta 80ko oi! eta streetpunkaren eragin zuzena du. Des-Kontrol taldeak musika-mugimendu horiek hartu ditu oinarritzat eta horiek bizi da: rock borrokalaria, streetpunkaren jarrera, punkaren izaera eta underground kulturaren defendatzaile sutsua... Des-Kontrol taldea, musikalki egindako lanaren emaitza jasotzen ari da, baina zurrumurruak Des-Kontrol taldea jomugan jarri dute azkenaldian eta disko hau zurrumurru horiek deuseztatuko da; Des-Kontrol taldea Euskal Herriko eta estatu espainoleko streetpunk eta oi! mugimenduen erreferentea da, atzerriko eta estatuko hainbat streetpunk-bildumatan hartu du parte. Inork ez du zikinduko Des-kontrol taldearen ospe ona. Hona hemen "Hipokrisia eta faxismoaren aurka" disko indartsu eta kementsua.

Des-Kontrol taldearen seigarren diskoa "Hipokrisia eta faxismoaren aurka" urrian eta azaroan grabatu da Arrasateko Etxezarreta baserrian eta IZ estudioan (Amasa).

## Des-Kontrol taldearen agiria

Des-Kontrol taldeak, disko honekin, eurei buruz esaten ari den guztia argitu nahi du. Faxistatza jo gaituzte eta argi eta ozen esan nahi dugu Des-Kontrol taldea faxismo eta arrazakeriaren aurka azaldu dela atzo, gaur eta beti.

Des-Kontrol taldearen aurka agertutako dossier, pintada, pegatina eta boikotari aurre egiteko ez gara beraien joko berdinean eroriko. Gu musikariak gara eta gure armekin arazoari aurre egitea erabaki dugu. Des-Kontrol taldeak, horretarako, Euskal Herriko hainbat musika talderi laguntza eta elkartasuna eskatu dio. Honekin ez ditugu atzean utzi nahi guran konfiantza jarri duten pertsona eta musika taldeak. Lagun hauei guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu eurek gabe Des-Kontrol ez zelako izango gaur egun dena. Eskerrak, bihotz bihotzez.

Beste alde batetik, diskoan parte hartu duten talde eta musikariei esan behar diegu guztiz eskertuta gaudela eurek azalduzko elkartasunarekin. Talde eta musikari horien laguntzarik gabe proiektu hau ezin izango genukeen aurrera bota eta eurek eskainitako laguntzak ematen duen mediatikotasunaz baliatuta skinhead mugimenduaz gain beste jende askorengana helzea espero dugu. Des-Kontrol taldeaz gaizki esaka ibili direnak, skinhead mugimendua pozoindua eta zatitzeaz gain, mugimendu honetatik kanpoko jendea ere nahastea lortu dute. Proiektu honekin, jende horri azaldu nahi genioke egia beste bat dela eta guk ere badaukagula zer esan arlo horretan. Gaur guri egotzi digute gezurra, agian bihar beste talde batzuek jasango duzue eraso hori.

Des-Kontrol hipokrisiaren eta faxismoaren aurka, utz gaitzazue bakean !!!

Des-Kontrol taldearen agiri honekin, Des-Kontrol taldearen aurka egiten ari diren akusazio faltsu guztiak deuseztu nahi ditugu.

Des-Kontrol, punk-oi talde gaztea, Arrasaten sortu zen 1996an. Hasiera hasieratik erakutsi genuen faxismoaren eta arrazakeriaren aurkako izaera eta jokaera, bai gure abesti eta bai kontzertuak aukeratzeko orduan agertutako irizpidearekin. Langilean semeak gara eta langileriaren pentsaera ezkeriarren aldekoak izanda, nola esan daiteke talde anbiguo edo faxista bat garelara?

Benetako faxistak izango bagina ez genuke izaera azaltzeko inolako arazorik edukiko (honela faxismoaren aldeko insignia eta adierazpenak egingo genituzke, eta hau ez da horrela guztiz kontrakoa baizik); horrexegatik oso minduta gaude, 12 urte daramatzagu faxismo eta arrazakeriaren aurkako abestiak egiten eta orain faxistak garelara diote.

Soinu teknikaria: Haritz Harreguy. "Pakean utzi arte" eta "Hay algo aquí que va mal" abestiak Doctor Master (Pasaia) estudioan nahastu dira. Nahasketak: Haritz Harreguy eta Des-Kontrol. Ñakok ekoitzi eta koordinatu du.

"Hipokrisia eta faxismoaren aurka". Abesti berria propio eginda elkartasun disko honetarako. Musika Des-Kontrol taldeak egin du. Testua Xabier Silveira bertsolariak idatzi du eta abestiaren hasierako bertsoa botatzen du, Fermin Muguruzak koruak egin ditu.

"No hay sitio para ti". Abesti hau Bilboko MCD talde ospetsuaren bertsoa da. Niko (MCD) eta Podri dabilta koruak egiten, Iñigotok (Etsaiak) gitarra sartu du.

"Duintasunez eutsi". Izenburu bereko diskoan agertzen den kantuarren bertsoa da. Laguntzaile zerrendarik luzeena du abesti honek: Gari (ahotsak), Iñigo Velez de Mendizabal eta Mikel Balenziaga (Athletic), Mikel Gonzalez, Eñaut Zubikarai eta Jon Ansotegi (Real Sociedad), Aitor Lopez Rekarte "Bonba", Aiara, Arrate, Iraiz, Erik eta Oinatz (gaztetxoak) koruak egin dituzte. Porrotzek animoak ematen dizkio Des-Kontrol taldeari.

"Hay algo aquí que va mal". The Specials taldeak egindako abestia da eta gero Stiff Little Fingers taldeak jo zuen. Euskal Herrian Kortatu taldeak bertsiatu zuen eta gure artean klasiko bihurtu. Fermin Muguruza (ahotsa), Ion Tronbon (tronboia), Jul (Rip), eta Dieguillo (Antisocial) koruetan daude.

"Makina lehertu arte". Des-Kontrol taldearen abesti berria. Fer (Kuraia), Xabi eta Aguayiko (Kaotiko) agertzen dira koruak egiten.

"Pakean utzi arte". Hertzainak taldearen abesti mitikoa. Gasteizko Piti eta Usurbilgo Naskas autonomoak hil zirenean egindako abesti esanguratsua. Barrikada taldeko El Drogasek ahotsa sartu du, Keuk eta Haritz Harreguy gitarra jo dute.



Des-Kontrol taldeak, gaur arteko ibilbidean, 500 kontzertu baino gehiago jo ditu eta orain jasaten ari garen tratua ez dugu, inolaz ere, merezi.

Hainbat dossier eta txosten agertu dira non euren uestezko eta balizko informazioa jende artean zabaldu duten, min egitea izan da euren helburu; eta ez egia azaltzea. Honegatik Des-Kontrol taldea ez duenak ezagutzen egia jakin behar du, eta ez, bakarrik euren bertsoa. Benetako egia. Des-Kontrol taldeak ekintza askotan parte hartu izan du eta txosten horietan ez da ekintza huetaz ezer azaltzen:

- 2007ko urriaaren 12an, hispanitatearen aurkako ekitaldian kontzertua jo zuen.
- 2005 eta 2006 urteetan Arrasateko elkartasun egunean parte hartu.
- [http://www.entzun.com/noticias\\_view.php?uuiid=1415&PHPSESSID=1bb2e11027bba8666358de4b86cb11a7](http://www.entzun.com/noticias_view.php?uuiid=1415&PHPSESSID=1bb2e11027bba8666358de4b86cb11a7)
- 2008an Elkartasun Eguna, Añorga.
- Euskal presoan aldeko kontzertuak eskaini.
- Guillem Anguloren (eraildako gazte antifaxista) omendaldian jo.
- Herri Norte taldearen aldeko kontzertuan jo.
- <http://www.aupaathletic.com/noticias/noticias-ver.asp?idN=3795>
- Nafarroa Oinez, 2007an
- Ibilaldia, 2008an

Honetaz gain, Des-Kontrol taldea epaitzen ari den jende honek hainbat astakeria egiten ari da, jende mehatxatu, jipoiak eman eta gazteria izutu. Hau al da antifaxista izatea? Honelako jokaerei "aski da" esan behar diegu eta utz dezatela euskal gazteria bakean. Beste alde batetik, orain arte Euskal Herrian ez da honelako arazorik egon, Des-Kontrol taldea azken 12 urteotan etengabe jotzen ibili da eta nolatan orain gezur zakukada hori?

Araozok ez dauden lekuan arazoak sortaraztea, naziak ez dauden lekuan naziak ikustea... ematen du jende honek soilik liskarra sortu nahi duela. Gu epaitu nahi gaituzte eta eurei nork hartuko die kargu?

Gaur egun, Euskal Herrian baditugu nahikoa arazo, faxistak ez dauden tokian bilatzen ibiltzea baino, ez duzue uste?

Besterik gabe, agur bero bat eta duintasunez eutsi!!!

Des-Kontrol beti arrazakeria eta faxismoaren aurka!!!

Utzi gaitzaztela bakean...

Hodei: baxua eta ahotsa  
Magu: gitarra eta ahotsa  
Markel: gitarra  
Peter: bateria  
Pepin: bigarren ahotsa  
Nako: soinu teknikaria

1999, "Des-Kontrol", maketa (Bronko Bullfrog)  
2001, "Jarraituko dugu", singlea  
2002, "Behin eta berriro" (Potencial Hardcore)  
2004, Des-Kontrol + Hell Beer Boys  
2006, "Duintasunez eutsi" (Oihuka)  
2007, "10 urte" DVD-CD (Baga-Biga)

ritxi aizpuru (2008ko abenduaren 3)

